

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 20 milioi euro inbertitzea aurreikusten du 2015a arte enpresa-ekintzailtza sustatzen

I. Ekintzailtza Planak enpresa berriak sustatzen eta laguntzen dituen 27 ekintza abian jarriko ditu

Miércoles, 17 de octubre de 2012

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran [2013-2015 Nafarroako I. Ekintzailtza Plana](#) sustatzeko erabakia hartu du. Plan hori jaio da enplegua sortzen eta Nafarroako garapen ekonomiko nahiz sozialerako baliabideak jartzen dituzten enpresen sorrera sustatzeko. Lau alor estrategikoetan biltzen diren 27 ekintza barnean hartzen ditu planak eta abian jartzeko 20 milioi euro inbertitzea aurreikusten da.



Nafarroako jauregia, Foruen Monumentua aurrean duela.

Ekintzailtza Plana Moderna Planaren estrategiaren barnean dago; hark oinarritzeko ardatz ezartzen du sustatzen duen garapen ekonomikoko eredia eraikitzeko. Gaur egun, urtean 8.000 enpresa berri ezartzen dira. Planaren helburua kopuru hori pixkanaka handitzea da 2015. urtean 1.100 izan daitezen; 1.250, 2020. urtean eta 1.600, 2030ean. Gainera, kalitatezko lanpostuak eta espezializazio handiarekin sortuko dituen enpresa-sare berritzailea sortzea bilatzen du.

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoecheak gaur prentsaurrekoan aurkeztu duen plan hori [parte-hartzeko prozesu zabala](#)ren ondoren idatzi da, eta bertan alor publikoko nahiz pribatuko berrogeita hamar bat erakundek lagundu dute: enpresa nafarrak, unibertsitateak, finantza-erakundeak eta administrazio publikoak.

Ekintzailtza-aren ikuspegi integrala duten lau arlo estrategikoak

Plana ekintzailtza-aren ikuspegi integrala ematen duten lau arloren inguruan idatzi da, eta haien artean parte hartzeko prozesuan zehar osatutako lan-taldeetan proposatutako 27 ekintza antolatzen dira. Guztira, 20 milioi euroko aurrekontua aurreikusten da lau arlotan bereizita eta 2013, 2014 eta 2015eko Aurrekontuetan esleitu beharko direnak.

Ideen Sustapenaren, ekintzailtza-jardueraren sorkuntza eta

finkatzearen barnean (9,5 milioi euro), proiektuko edozein fasetan zuzenean ekintzaileentzako ekintzak agertzen dira. Ekintza zehatzak nabarmentzen dira unibertsitateetan nahiz LHko ikastetxeetan ekintzailetza-bulegoak sustatzea, esaterako; enpresa nafarren lehiakortasuna hobetzeko ekintzak, edo esperientzia duten beste enpresario batzuen gomendioa jaso ahal izango den mentoring-sarea sortzea

Bestalde, **Finantzaketa eta Administrazio** arloak (5,5 milioi euro) zenbait ildotan sartuta dauden maila ekonomiko eta administratiboko ekintzak ezartzen ditu; proiektuen finantzaketa erraztea nahi dute eta enpresa bat zabaltzeko egun beharrezkoa den burokrazia murrizten jarraitzea.

Alor horren barnean eta finantzaketari dagokionez, abian jarriko dira, alde batetik, jarduera berri baten hasieran dagoen arriskua murrizteko ekintzak (hasierako salbuespenak, proiektuen sustatzaile eta inbertitzaileentzat berariazko neurri fiskalak...), eta bestetik, dauden finantzaketa-aukera guztiak sustatzeko ekintzak (mikrokredituak, inbertitzaile partikularren proiektuei ekarpenak...). Gainera, ekintzailetza-planak ere proposatzen du enpresa berriak sortzeko tresna ona direla erakutsi duten beka eta sariak sustatzea.

Administrazioari dagokionez, ekintzaileei lotutako informazioa estandarizatu eta barreia dadila lortu nahi da eta, horrekin batera, erakunde publikoen prozedurak sinplifikatzea, era horretan izapideak arinduz. Lehen helburu horretarako, ekintza batzuk abian jarriko dira: izapidetzeko giden sorrera edo komunikazio elektronikoen tresnen erabilera handiagoa sustatzea. Bigarren helbururako beste ekimen batzuen artean "Espediente ekintzaile bakarra" izenekoak sortu nahi da; hura tartean dauden administrazio guztiek erabiliko dute beharrezkoak ez diren administrazio-izapideak saihestuz.

Sareak eta Aliantzei dagokienez (2,5 milioi euro), ekintzaileen eta gainerako enpresa-sarearen arteko harremanei erreparatzen die, elkarri laguntzeko sinergiak lortzeko xedearekin. Horretarako, planak ekintzaileen presentzia intereseko sareetan sustatu nahi du, non merkataritza-aukerak sor daitezkeen; Hub pribatu baten sorrera, elkargune izango den ekintzaileek autokudeatutakoa; eta alor teknologikoan irtenbide bateratuen bilaketan oinarritzen den enpresa berritzaileen berariazko sarea abian jartzea.

Azkenik, **Talentuaren eta Gizartearen** arloaren (2,5 milioi euro) helburua herritar guztientzako ekintza-sorta bat zehaztea da, ekintzailetzaren aldeko giroa sortze aldera, eta ekintzailearen irudia gizartean errespetatua izan dadin lortzeko. Hemen hezkuntza-munduaren inguruan dauden neurriak antolatzen dira oinarrizko mailetatik hasita goi-mailetara arte. Gainera, gizarte osoari ere igorri nahi zaio ekintzailetzak zer garrantzi duen garapen ekonomiko eta sozialaren eragile moduan.